| 8. ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA | *8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO SOCIOECONÓMICO* |
| 9. EUSKARA HEDABIDEETAN | *9. EL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN* |
| 10. EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN | *10. EL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL* |
| 11. EUSKARAREN CORPUSA GARATZEKO LANKIDETZA | *11. COLABORAR EN EL DESARROLLO DEL CORPUS DEL EUSKERA* |
| 12. EAEz BESTEKO EUSKARAREN LURRALDEETAKO ERAGILE PUBLIKO ZEIN PRIBATUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA | *12. FOMENTAR LA COLABORACIÓN CON AGENTES PÚBLICOS Y PRIVADOS DE LOS TERRITORIOS VASCOS AJENOS A LA CAE* |
| 13. EUSKARAREN UNIBERTSOA ETA BIZIPENA GIZARTE OSOAREN AURREAN DUINDU ETA PRESTIGIATZEA ETA EUSKARAREN KULTUR KONTSUMOA SUSTATZEA | *13. DIGNIFICAR Y PRESTIGIAR EL UNIVERSO Y LA VIVENCIA DEL EUSKERA ANTE TODA LA SOCIEDAD Y FOMENTAR EL CONSUMO CULTURAL EN EUSKERA* |
| 14. EUSKARAREN NAZIOARTEKO SUSTAPENA ETA ELEANIZTASUNAREN KUDEAKETAREN ALDEKO KONPROMISOA | *14. PROMOCIÓN INTERNACIONAL DEL EUSKERA Y COMPROMISO POR LA GESTIÓN DEL PLURILINGÜISMO* |

**BETETZE MAILA**

**1. EUSKARAREN AGENDA ESTATEGIKOA GARATZEA, SAIL GUZTIEN ARTEKO ELKARLANEAN**

1. Euskararen Agenda Estrategikoaren 2018ko kudeaketa plana gauzatu da.

1.1. Euskadi 2020 Gobernu Programako 4 konpromiso eta 14 ekimen zehaztu eta garatu dira. Agendako jardueren berri eman da IREKIA webgunean; 100 berri baino gehiago argitaratu dira.

1.2. Batzorde bakarra eratzea erabaki da: Jarraipen Batzordea.

1.3. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko apirilaren 23ko Aginduaren bidez, Euskararen Agenda Estrategikoaren Jarraipen Batzordeko kideak izendatu dira. 2018ko maiatzaren 30ean Batzordea bildu da.

**2. EUSKARA ETA HIZKUNTZA POLITIKAREN INGURUKO ADOSTASUN POLITIKO ETA SOZIALA LANDU ETA AREAGOTZEA**

1. Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak bilera egin zuen Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, 2018ko azaroaren 14an, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela. Bertan honako gai hauek aztertu ziren: euskarazko hedabideen finantzaziorako proposamena; Euskararen Agenda Estrategikoaren jarraipena; Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialak normalizatzeari buruzko Dekretu berria; 86/1997 Dekretua aldatzera datorren Dekretu berria (Euskadiko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena); eta Euskararen Aholku Batzordearen batzorde-atal berezietan egindako lanak.

2. ESEPen jarraipena eta tarteko ebaluazioa egiteko adierazleak aztertu dira eta informazioa bildu da. Emaitza txostena 2019an egingo da.

3. EUDEL eta UEMArekin ESEP garatzeko diru-laguntza izendunen lerro bi egin dira. Izan ere, ESEP garatu gabe geratzen diren EAEko udalerri gehien-gehienak txikiak eta oso euskaldunak dira, eta egoera soziologiko hori eta baliabide ekonomiko urriak direla eta, ez du udalerri berri batek ere ESEP garatu lehen aldiz 2018an. Dena dela, 2018an 52 udalerrik berritu dute ESEP plana eta beste 22k horretarako konpromisoa hartu 2019an ere.

4. Euskararen Erabilera eta Gizartearen Aktibazioa Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak legegintzaldi honetako lehenengo bilera egin zuen; Gasteizen, 2018ko urtarrilaren 10ean. Bilera horretan, batzordearen helburuak zehaztu ziren, eta aurrera begirako estrategia eta proposamenak aztertu ziren. Helburu hau zehaztu zen: euskararen erabilera eta gizarte aktibaziorako ekimen eta praktika berritzaile eta arrakastatsuen identifikazio, jarraipen eta azterketarako gogoeta gunea eratzea. Batzorde-atal Berezi

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. DESARROLLAR LA AGENDA ESTRATEGICA DEL EUSKERA, EN COLABORACIÓN CON TODOS LOS DEPARTAMENTOS DEL GOBIERNO***

*1. Se ha implementado el plan de gestión de la Agenda Estratégica del Euskera correspondiente al 2018.*

*1.1. Se han definido y desarrollado 4 compromisos y 14 iniciativas del Programa de Gobierno Euskadi 2020. Las actividades de la Agenda se han dado a conocer en la página web IREKIA; se han publicado más de 100 noticias.*

*1.2. Se ha decidido crear una única comisión: la Comisión de Seguimiento.*

*1.3. Por Orden de 23 de abril de 2018, del consejero de Cultura y Política Lingüística, se han nombrado a las y los miembros de la Comisión de Seguimiento de la Agenda Estratégica del Euskera. El 30 de mayo de 2018 se ha reunido la citada Comisión.*

***2. CULTIVAR Y PROFUNDIZAR EL ACUERDO POLÍTICO Y SOCIAL RESPECTO AL EUSKERA Y LA POLÍTICA LINGÜÍSTICA***

*1. El Pleno del Consejo Asesor del Euskera se reunió el día 14 de noviembre de 2018, en Vitoria-Gasteiz, en la sede del Gobierno Vasco, y fue presidida por el Lehendakari Iñigo Urkullu. En la misma se trataron los siguientes temas: la propuesta para la financiación de los medios de comunicación en euskera; el seguimiento de la Agenda Estratégica del Euskera; el nuevo Decreto sobre la normalización de las lenguas oficiales en las administraciones locales de Euskadi; el nuevo Decreto que modifica el Decreto 86/1997, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de Euskadi; y los trabajos realizados en las comisiones especiales del Consejo Asesor del Euskera (EAB).*

*2. Se han analizado los indicadores y se ha recogido información para realizar el seguimiento y la evaluación intermedia del ESEP. El informe se realizará en 2019.*

*3. Se han desarrollado dos líneas de ayuda nominativa para el desarrollo de planes ESEP con UEMA y EUDEL. Precisamente, los municipios que no han desarrollado planes de ESEP en la CAE son la gran mayoría municipios pequeños y con un alto porcentaje de vascoparlantes, y, por ello y por su precariedad en recursos económicos, no ha habido ningún nuevo plan de ESEP, que no sea los renovados. Aun así, son 52 municipios los que han renovado en 2018 su plan ESEP y otros 22 han tomado la decisión de hacerlo en 2019.*

*4. La Comisión Especial para Fomentar el Uso del Euskera y la Activación de la Sociedad se reunió por primera vez en esta legislatura; el 10 de enero de 2018 en Vitoria-Gasteiz. En esa reunión, se marcaron los objetivos de la comisión, y se analizaron las estrategias y propuestas de futuro. Se marcó el objetivo siguiente: constituir un lugar de reflexión para la identificación, análisis y seguimiento de las iniciativas y prácticas más novedosas y exitosas dirigidas a fomentar el uso del euskera y la activación de la sociedad.*

honek beste bilera bat ere egin zuen; Gasteizen, 2018ko apirilaren 18an. Bilera horretan bi aurkezpen egin ziren: Euskarak 365 egun proiektuaren egungo egoera eta 2019rako proposamena; eta Euskaraldia proiektuaren inguruan abiatutako ikerketa.

*Esta Comisión Especial también se reunió el 18 de abril de 2018 en Vitoria-Gasteiz. En dicha reunión, se presentaron: el estado actual y propuesta para el 2019 del proyecto Euskarak 365 egun; el trabajo de investigación acerca del proyecto Euskaraldia.*

Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak bost bilera egin zituen 2018an: otsailaren 27an, Gasteizen; maiatzaren 15ean, Donostian; irailaren 18an, Gasteizen; urriaren 17an, Donostian; eta abenduaren 11n, Gasteizen. Bilera horietan honako gai hauek landu eta lan hauek burutu ziren: "Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat" izeneko dokumentuan zehaztutako gomendioen jarraipena egin zen; "Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat" dokumentuaren diagnostikoa enkargatu, eta burutu ostean, aurkeztu eta eztabaidatu zen, eta horren gaineko ekarpenak ere aztertu eta eztabaidatu egin ziren; aurrera begirako lan-proposamenak aurkeztu ziren; "Hizkuntzen Berdintasuna Era Digitalean" txostena aurkeztu zen; eta Euskararen Adierazle Sistemaren barruko Ingurune Digitalerako adierazleen gaineko eztabaida burutu zen.

*La Comisión Especial para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital ha realizado cinco reuniones en 2018: el 27 de febrero en Vitoria-Gasteiz; el 15 de mayo en Donostia-San Sebastián; el 18 de septiembre en Vitoria-Gasteiz; el 17 de octubre en Donostia-San Sebastián; y el 11 de diciembre en Vitoria-Gasteiz. En dichas reuniones se trataron los siguientes temas y se realizaron los siguientes trabajos: se realizó el seguimiento de las recomendaciones especificadas en el documento denominado "Las TIC en euskera: recomendaciones para los poderes públicos"; se encargó el diagnóstico y, después de realizado, se presentó el diagnóstico del documento "Las TIC en euskera: recomendaciones para los poderes públicos", y se dio un debate sobre el mismo, así como sobre las aportaciones escritas al respecto; se presentaron las propuestas de trabajo para el futuro; se presentó el documento "Igualdad lingüística en la era digital"; y se debatió sobre los indicadores relacionados con el Entorno Digital dentro del Sistema de Indicadores del Euskera.*

Gazteen Unibertsoa eta Euskara Batzorde-atal Bereziak legegintzaldi honetako bigarren bilera egin zuen; Donostian, 2018ko maiatzaren 10ean. Bilera horretan, aisialdiaren eremuan (kultura, kirola, aisialdia…) gazteei zuzendutako egitasmo, ekimen, jardueren bildumaren aurkezpena egin zen. Horrez gain, hurrengo bilera bitartean, urte bukaeran egin beharreko jardunaldirako proposamena prestatu zuen batzordeko zuzendaritzak.

*La Comisión Especial Universo de la Juventud y Euskera se reunió por segunda vez en esta legislatura; el 10 de mayo de 2018 en Donostia-San Sebastián. En esa reunión se presentó la recopilación de las actividades (culturales, deportivas, de tiempo libre…) dirigidas a la juventud en su tiempo de ocio. Además, durante el año, la dirección de la comisión hizo la propuesta para las jornadas a celebrar a final de año.*

5. Euskararen Aholku Batzordeak "Gazteak eta euskara. Gauzatutako praktiken gaineko gogoetarako jardunaldiak" izeneko jardunaldiak antolatu zituen Donostian 2018ko azaroaren 22an eta 23an. Lehenengo egunean gai honen inguruko hainbat hitzaldi entzuteko aukera egon zen. Bigarren egunean lau lan-talde antolatu ziren gogoetak partekatzeko.

*5. El Consejo Asesor del Euskera organizó las jornadas "Jóvenes y Euskera. Jornadas para la reflexión en torno a las prácticas lingüísticas entre la juventud" el 22 y 23 de noviembre de 2018 en Donostia-San Sebastián. En la primera jornada se ofrecieron varias ponencias sobre el tema en cuestión. En la segunda jornada, se organizaron cuatro grupos de trabajo para compartir reflexiones.*

### 3. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA HERRI ADMINISTRAZIOETAN

### *3. INCREMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS*

1. 86/1997 Dekretua aldatzeko proposamen bat diseinatzeko, 2018aren amaieran, lehen zirriborroa bukatu zen (zuzendaritzako teknikari eta aholkulari juridiko guztiek parte hartu zuten elaborazio prozesuan), eta orain sailburuordearen eta zuzendarien eskuetan dago.

*1. Para diseñar y dar a conocer la propuesta de adecuación del Decreto 86/1997, a finales del 2018, con la participación de los técnicos y abogados de la Dirección, se elaboró un primer borrador de decreto que después se puso en manos de los directores y la viceconsejera.*

2. Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA), beste entitate publikoekin lankidetzan, politiko eta teknikoaren bina bilera egin dira 2018an.

*2. En 2018 se han realizado 2 reuniones de cada Comisión de Coordinación Interinstitucional de las administraciones públicas (HAKOBA), dos de la comisión política y dos de la técnica en colaboración con otras entidades públicas.*

3. HAKOBAn adostutako "administrazioen arteko euskarazko komunikazioak" izeneko ekimenaren ildotik, administrazioen arteko euskarazko komunikazioak proiektua Berdintasun arloan burutu eta ebaluatzeaz gain, hurrengo urteetan beste arloetara zabaltzea erabaki da.

*3. En el marco de la iniciativa "comunicaciones interadministrativas en euskara" acordada en HAKOBA, además de llevar a cabo el proyecto de impulsar las comunicaciones interadministrativas en euskara en el ámbito de la Igualdad, se ha decidido expandirlo a otros ámbitos.*

4. HAKOBAn adostutako "Berdintasun arloko komunikazioak" proiektuaren zabalkundea egin da. Proiektu horren helburua da administrazioen arteko

*4. Se ha llevado a cabo la labor de difusión del proyecto acordado en HAKOBA "Comunicaciones en el ámbito de la Igualdad" cuyo objetivo es el fomento del uso del euskara*

harremanetan euskararen erabilera bultzatzea berdintasun arloan. Horrez gain, modu orokorrean euskararen erabilera lan hizkuntzan bultzatzeko, eta beraz, baita administrazioen arteko harremanak euskaraz izan daitezen bultzatzeko ere, Gidalerroak izeneko euskara planak egiteko jarraibideak sektore publiko osoaren esku jarri eta zabaldu egin dira.

*en las relaciones interadministrativas en dicho ámbito. Además de eso, y a nivel general, se ha puesto al alcance del sector público una serie de directrices para hacer planes de euskera de nombre "Gidalerroak", donde se impulsa el euskara como lengua de trabajo y, por tanto, también en las relaciones entre administraciones.*

5. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra bitan batu da 2018an, eta Hizkuntza Normalkuntza Teknikarien Batzordea 5 aldiz. Horrez gain, 43 bilera egin dira, taldeka edo banaka, Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetako Hizkuntza Normalkuntzako Teknikariekin aholkularitza eman eta koordinazioa bermatzeko.

*5. La Comisión Permanente de las Lenguas Oficiales del Gobierno Vasco se ha reunido en dos ocasiones a lo largo de 2018. La Comisión Técnica de Normalización Lingüística se ha reunido 5 veces. Además se han realizado 43 reuniones de menor tamaño y también individuales con el personal técnico de normalización lingüística de los departamentos y organismos autónomos del Gobierno Vasco, para dar asesoramiento y garantizar la coordinación.*

6. Sektore desberdinetako erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko Mahai Sektorialaren Batzordea apirilaren 13an batu zen. Bestetik, ekainaren 13an beste bilera bat izan zen Justizia Administrazioaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren artean, Justizia Administrazioko Euskara Plana Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaldiko Plan Nagusiaren eredura egokitzeko asmoz.

*6. Para intensificar la coordinación entre entidades de diferentes sectores, la Comisión de la Mesa Sectorial se reunió el 13 de abril. Posteriormente, el 13 de junio tuvo lugar otra reunión entre la Administración de Justicia y la Viceconsejería de Política Lingüística a fin de adaptar el Plan de Euskara de la Administración de Justicia al Plan General de Normalización del uso del euskera en el Gobierno Vasco correspondiente al VI Período de Planificación.*

7. 86/1997 Dekretuaren eraginpeko erakunde guztien ebaluazioa argitaratu da (V. Plangintzaldikoa). Modu zientifikoan egindako ebaluazioen berri eman eta datuak eskura jarri zaizkie webgunean sektore publikoari.

*7. Se han publicado los resultados de la evaluación correspondiente al V Período de Planificación de todas las instituciones sujetas al ámbito de aplicación del Decreto 86/1997. Se ha puesto al alcance del sector público en nuestra web el informe de evaluación realizado con una metodología científica.*

8. Ebaluazioak eta, hortaz, diagnostiko zientifikoak egiteko metodologia eta bestelako baliabideak jarri dira HPSren webgunean herri-administrazio sozietate publiko eta erakunde pribatuen esku.

*8. En la web de la Viceconsejería están al alcance de las sociedades públicas y entidades privadas de las administraciones públicas los recursos y metodología para realizar un diagnóstico o evaluación científica.*

9. Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetatik 14k (%74) onartu du Plan Estrategikoa 2018an, eta beste 4k (%21) onartzeko bidean dituzte. Guztira, 18 sail eta erakunde autonomiadunek onartu dute euren Plan Estrategikoa, hau da, %95k. Urteko kudeaketa planei dagokienez, 17 zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzen %12 suposatzen dute) onartu egin dituzte dagozkien kudeaketa planak 2018an, eta beste 33 (%24) euren kudeaketa planak diseinatzen ari ziren 2018an. Beraz, guztira 50 zuzendaritzak (%36) euren urteko Kudeaketa planak onartu dituzte, edo diseinu-fasean zeuden 2018an.

*9. 14 departamentos y organismos autónomos del Gobierno Vasco (74%) han aprobado su Plan Estratégico durante 2018, y otros 4 (%21) lo aprobará en breve. En total 18 departamentos y organismos autónomos han aprobado su Plan Estratégico, esto es, el 95%. En lo referente a los planes de gestión anuales, 17 direcciones (representan el 12% del total de las direcciones del Gobierno Vasco), han aprobado sus planes de gestión anuales en 2018, y otras 33 (%24) estaban en fase de diseño. Por lo tanto, un total de 50 direcciones (%36) han aprobado o estaban diseñando su plan de gestión anual durante 2018.*

10. Euskara planak gauzatzeko Gidalerroak HPSren webgunean daude modu digitalean.

*10. Las directrices para elaborar planes de euskera están publicadas en la web de la Viceconsejería.*

11. Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunetan garatu diren Plan Estrategiko guztiak gidalerroen arabera egin dira. Horrez gain, urteko kudeaketa planak ere Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaldiko metodologiaren arabera egin daitezela errazteko gidalerroak zehaztu eta jaso egin dira. Eusko Jaurlaritzako Euskara Atalei aurkeztu eta eskuratu zaizkie.

*11. Todos los Planes Estratégicos que se han aceptado en los departamentos y organismos autónomos del Gobierno Vasco se han diseñado según estas directrices. Además, se han diseñado también las directrices para garantizar que los Planes de Gestión anual se realizan acordes a la metodología del Plan General de Normalización del uso del euskera en el Gobierno Vasco para el VI Período de Planificación.*

12. Uztailean bilera egin zen 86/1997 Dekretuaren eraginpeko erakundeetako zuzendariekin. Bestetik, Mahai

*12. Se realizó en julio una reunión con las directoras y los directores de las instituciones sujetas al ámbito de*

Sektorialeko Batzordearen bilera egin zen apirilean.

*aplicación del Decreto 86/1997. En abril, se realizó una reunión con las y los responsables de la Comisión de la Mesa Sectorial.*

13. Sailetan eta orokorrean sektore publikoan Bikainera aurkezteko sustapen lana egin da Bikain Artezte Kontseiluaren eskutik. 2018an, sektore publikoko 7 erakundek izena eman eta Bikain ebaluazioa egin eta ziurtagiria jaso dute.

*13. Con la ayuda del Consejo Rector de Bikain se ha hecho un trabajo de promoción entre los Departamentos y, en general, del sector público. Durante el 2018, 7 entidades públicas han recibido la evaluación y certificación de Bikain.*

14. Bikain ebaluazio prozesuaren kudeaketan laguntzeko 26 bilera egin ditugu.

*14. Hemos participado en 26 reuniones destinadas a su gestión del proceso evaluativo Bikain.*

15. Eusko Jaurlaritzan eta bere erakunde autonomiadunetan euskararen erabilera plana bultzatzeko ez da Bikaineko ebaluazio-simulazioarik egin, eskaera egon ez delako.

*15. No se han realizado simulaciones de la evaluación Bikain en los departamentos y organismos autónomos del Gobierno Vasco con el fin de impulsar el plan de utilización del euskara, ya que no ha habido solicitudes.*

16. Gipuzkoako Sozietate publiko batzuen aurrean plan eta irizpide berrien aurkezpena egin zen. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoei ere aurkezpena egin zitzaien. Bilera bi egin dira Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako arduradunekin; bestetik, aurkezpen teknikoak ere egin dira. Bukatzeko, 10 banakako bilera egin dira 4 sozietate publikori zuzeneko aholkularitza emateko euskara plana garatu ahal dezaten.

*16. Se han hecho presentaciones de los nuevos planes y criterios ante algunas sociedades públicas de Gipuzkoa y de las dependientes del Gobierno Vasco. Se han realizado dos reuniones con los y las directoras de las sociedades públicas y entes públicos de derecho privado. Asimismo, se han realizado reuniones o presentaciones técnicas. Por último, se han realizado 10 reuniones individuales con 4 sociedades públicas a fin de asesorarlas para que puedan desarrollar sus planes de euskera.*

17. 2018an 16 sozietate publikok (%45,7) eman dute izena itzulpen laburren doako zerbitzuaren erabiltzaile izateko. Horietatik 15 ohiko erabiltzaileak dira. 2018an zehar guztira 53.382 hitz itzuli zaizkie doan aplikazio honen bitartez.

*17. En 2018 se han inscrito 16 sociedades públicas (%45,7) en el servicio gratuito de traducciones breves. Entre ellas, 15 son usuarias habituales del servicio. Durante 2018 en total se han traducido 53.382 palabras gratuitamente.*

18. Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Baliokidetzarako Batzordeko Lan-talde Teknikoaren 4 bilera egin dira. Horietan hiru erakunderen eskariak aztertu egin dira, eta txosten bat 2019aren hasieran entregatuko da.

*18. Se han realizado 4 reuniones del Grupo de Trabajo Técnico de la Comisión para la Convalidación de los Títulos y Certificaciones de Euskera. Durante el 2018 se han analizado tres peticiones de convalidación, y el informe estará preparado para primeros del 2019.*

19. Salbuespenen ondorioz, euskara maila egiaztatu beharrik ez duten pertsonen erregistroa diseinatzea eta garatzeari begira, 2018an beharrezko pausuak eman dira Hezkuntza Sailak beharrezkoak diren datuak eman ditzan. Beharrezko egokitzapen eta lan teknikoak egin dira Erregistro Bateratuak salbuetsitakoen datuak hartu ahal ditzan. Datuak 2019an egongo dira ikusgai.

*19. Con el fin de diseñar y desarrollar el registro de personas exentas de acreditar los niveles de euskera como consecuencia de las exenciones, se han dado los pasos necesarios para que el Departamento de Educación proporcione los datos necesarios. Se han realizado las revisiones y labores técnicas pertinentes para que el Registro Unificado pueda recoger los datos de las personas exentas. Los datos se podrán consultar a lo largo de 2019.*

20. Berdintasunaren arloko proiektuan EUDELek parte hartu du.

*20. EUDEL ha tomado parte en el proyecto de fomento de las relaciones interinstitucionales del ámbito de la Igualdad.*

21. EUDELi Lankidetza Hitzarmenaren ildotik diru-laguntza izenduna eman zaio.

*21. En el marco del Convenio de Colaboración con EUDEL se le ha dado una subvención nominativa.*

22. 2018an UEMAko hiru udalerrik lortu dute Bikain ziurtagiria.

*22. En 2018 han conseguido el certificado Bikain 3 municipios de UEMA.*

23. Herri administrazioetan euskararen erabilera plana kudeatzeko Erreferentzia Marko Estandarraren arabera egindako aplikazio informatikoaren (HIZKETA) aurkezpena hiru lurraldetan egin genuen.

*23. Se ha presentado la aplicación HIZKETA en los tres territorios históricos, aplicación informática para la gestión del plan del uso del euskera en las administraciones públicas, diseñada de acuerdo con el Marco de Referencia Estándar de Bikain.*

24. ELEBIDE zerbitzua hobetzeko eta garai berrietara egokitzeko aplikazioaren egokitzapenak 2019an abian jarriko dira. 2018an aplikazio berria diseinatzen eman dugu.

*24. Las adecuaciones en la aplicación de ELEBIDE, a fin de mejorar el servicio y adecuarlo a las actuales necesidades, se harán en una aplicación que se ha diseñado en 2018, y en 2019 se pondrá en marcha.*

25. ELEBIDEko 2017ko oroitidazkia HPSren webgunean argitaratu da.

*25. La memoria de ELEBIDE correspondiente a 2017 se ha publicado en la web del HPS.*

26. Euskararen erabilera planen jarraipenerako eta ebaluaziorako Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoei eta zuzenbide pribatuko ente publikoei aholkularitza eman zaie. Bilerak egin dira zuzendariekin (gutxienez bi), aurkezpen teknikoak bertako teknikariekin, eta aholkularitza emateko banakako saioak ere bai (10).

*26. Se ha proporcionado el asesoramiento necesario a las administraciones públicas, sociedades públicas y entes públicos de derecho privado para realizar el seguimiento y evaluación del Plan de Uso del Euskara. Se han realizado por lo menos 2 reuniones con los y las directoras de dichas empresas públicas, se han realizado presentaciones técnicas y 10 reuniones técnicas individuales.*

27. Euskara maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako pertsonen erregistroa (47/2012 Dekretua), gaur egun indarrean dagoen Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) integratuko dira.

*27. Los datos de las personas exentas de acreditar un certificado de euskera por haber realizado sus estudios en esta lengua (Decreto 47/2012) se van a integrar en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskara (RUTCE).*

28. Lurralde historiko bakoitzean egindako aurkezpenak alde batera utzita, Hizkuntza normalizazio teknikariei interesgarriak izan daitezkeen formazio saioak ez dira egin.

*28. Aparte de las presentaciones hechas en cada territorio histórico no se han organizado acciones formativas que puedan resultar interesantes al personal.*

**4. EUSKARAN EGOERARI ETA BILAKABIDEARI BURUZKO IKERKETA SUSTATZEA**

***4. FOMENTAR LA INVESTIGACIÓN RELATIVA A LA SITUACIÓN Y EL DESARROLLO DEL EUSKERA***

1. Euskararen Adierazle Sistema (EAS) proiektuan honako lan hauek egin dira:

- Gaur egun 38 adierazle aurki daitezke web aplikazioan. Bost adierazle berri gehitu dira aplikaziora, eta horrez gain zazpi eguneratu egin dira.
- Euskarak arlo sozioekonomikoan duen egoera neurtzeko LMZ estatistikan euskarari buruz txertatutako galderak ustiatu dira.
- Euskararen egoera eta bilakaera unibertsitatean aztertzeko lantaldeak lanean jarraitu du. Taldera gehitu dira Paueko Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkariak.
- Euskararen egoera eta bilakaera aisialdian eta kirolean aztertzeko lantaldeak lanean jarraitu du.
- EASen aplikazio informatikoan hobekuntzak egin dira: fitxa teknikoen eredua diseinatu, idatzi eta aplikazioan txertatu dira.

1.1. EASen egitura berriaren arabera honako bilera hauek egin dira:

- Jarraipen Batzordeak 3 bilera egin ditu.
- Talde Motorrak 10 bilera egin ditu.
- “Kirola eta Aisialdia” lan-taldeak 11 bilera egin ditu.
- “Unibertsitatea” lan-taldeak bilera bat egin du.

1.2. Europako proiektuari dagokionez, INTERREG-POCTEFA diru-laguntzen 2017 epealdiari dagokion zuriketa egin da.

2. Euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreetan sakontzeko faktoreak aztertu dira:

- Inkesta Soziolinguistikoaren datuak erabiliz,

*1. En el Sistema de Indicadores del Euskera (EAS) se han llevado a cabo las siguientes tareas:*

- *Actualmente la aplicación web cuenta con 38 indicadores. Se han añadido cinco nuevos indicadores y se han actualizado siete.*
- *Para medir la presencia del euskera en el ámbito socioeconómico, se han explotado las preguntas sobre el euskera incluidas en el CMT.*
- *El grupo encargado de analizar la situación del euskera en la universidad ha continuado con su labor. Se han incorporado al grupo el representante de la Universidad de Pau y el de la Universidad Pública de Navarra.*
- *El grupo de trabajo encargado de analizar la situación del euskera en el deporte y el tiempo libre ha continuado con su labor.*
- *Se han realizado mejoras en la aplicación informática de EAS: se ha diseñado el modelo de las fichas técnicas, se han redactado y se han subido a la aplicación.*

*1.1. Se han celebrado las siguientes reuniones según la nueva estructura de EAS:*

- *La Comisión de Seguimiento ha realizado 3 reuniones.*
- *El Grupo Motor ha realizado 10 reuniones.*
- *El grupo de trabajo “Deporte y Tiempo Libre” ha realizado 11 reuniones.*
- *El grupo de trabajo “Universidad” ha realizado una reunión.*

*1.2. Respecto al proyecto europeo, se ha realizado la justificación de la ayuda INTERREG-POCTEFA correspondiente al 2017.*

*2. Se han realizado estudios para profundizar en el conocimiento de los factores que inciden en el uso del euskera:*

- *Se ha realizado un análisis de correlaciones utilizando*

korrelazioen analisia egin da.

• “Unibertsitatean Bilbon euskararen hiztun aktibo bilakatzen: Euskaraldia Deustuko Unibertsitatean eta Begoñako Andra Mari irakasle eskolan” izeneko ikerketa-egitasmoa garatu da (Deustuko Unibertsitateari diru-laguntza zuzena).

• “Kulturarekiko eta hizkuntzarekiko pertzepzioak, eta identitatearen eraikuntza: HUHEZIko ikasleen kasua” izeneko ikerketa-egitasmoa garatu da (HUHEZIri diru-laguntza zuzena).

• “Gogoa euskaraz sustatuz” ikerketa-proiektua garatu da (UZTAI Fundazioari diru-laguntza zuzena).

• Hizkuntza gutxituetako ahozko erabilerak irakasteko prestakuntza programak diseinatzeko printzipioak proposatzeko ikerketa garatu da (UNESCO KATEDRArekin kontratua).

• Arnasgunetako egoera ezagutzeko hainbat ikerketa burutu dira (UEMAri diru-laguntza zuzena).

3. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen idazketa egin da, eta argitaratzeko lanak abiatu dira: argitalpenerako testuak itzuli, zuzendu eta maketatu.

4. VI. Mapa Soziolinguistikoaren egitura zehaztu da eta datuak eskatu dira.

5. Eusko Jaurlaritzaren euskararen datu-basea eguneratzea eta aplikazioa birmoldatzea: Eusko Jaurlaritzaren euskararen datu-basea berritu da, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak erabiltzen duenaren ezaugarrietara ekarriz (V51). Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikatik eta Inkesta Soziolinguistikotik eratorritako datuak eguneratu dira. EUSTATen web orrian argitaratzen diren taulak ere eguneratu dira.

6. Euskararen azpiegituren datu-basea eguneratu da. Urtean zehar bi eguneraketa egin dira, urtearen erdi aldera lehena eta urtearen amaieran bigarrena. EUSTATen web orrian argitaratzen diren taulak ere eguneratu dira.

7. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen estatistika eguneratu da. Eguneraketa EASen egin da, eta EAEko datuez gain Nafarroakoak eta Iparraldekoak ere eguneratu dira. EUSTATen web orrian argitaratzen diren taulak ere eguneratu dira.

8. Herri-langileen euskara mailari buruzko estatistika eguneratu da. Eguneraketa EASen egin da. EUSTATen web orrian argitaratzen diren taulak ere eguneratu dira.

**5. HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BABESTEA**

1. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko zerbitzu publikoaren (ELEBIDE) gizarte-eragina zabaltzeko ez da 2018an ezer egin.

2. Eusko Jaurlaritzako Erabilera Plan Nagusian eta sektore publikorako euskara planak egiteko jarraibideetan zerbitzu-hizkuntzan helburua %100 izan behar dela jarri dugu,

*los datos de la Encuesta sociolingüística.*

*• Se ha desarrollado el estudio “Conversión en hablantes activos del euskera en la universidad en Bilbao: Euskaraldia en la Universidad de Deusto y en la Escuela Universitaria de Magisterio Begoñako Andra Mari” (subvención directa a la Universidad de Deusto).*

*• Se ha desarrollado el estudio “Percepciones sobre la cultura y la lengua, y construcción de la identidad: el caso de los alumnos/as de HUHEZI” (subvención directa a HUHEZI).*

*• Se ha desarrollado el estudio “Gogoa euskaraz sustatuz” (subvención directa a Fundación UZTAI).*

*• Se ha desarrollado un estudio para proponer los principios para el diseño de programas formativos de enseñanza del uso oral de las lenguas minoritarias (contrato con la CÁTEDRA UNESCO).*

*• Se han realizado diversos estudios sobre la situación en los municipios euskaldunes (subvención directa a UEMA).*

*3. Se ha realizado la redacción de los resultados de la VI Encuesta Sociolingüística, y se ha comenzado con las labores de publicación: traducción de los textos, corrección y maquetación.*

*4. Se ha definido la estructura del VI Mapa Sociolingüístico y se ha solicitado la información.*

*5. Actualización y rediseño de la base de datos del euskera del Gobierno Vasco: Se ha renovado la base de datos del euskera del Gobierno Vasco, adaptándola a la aplicación del Departamento de Cultura y Política Lingüística (V51). Se ha actualizado la información procedente de la Estadística de Población y Viviendas y de la Encuesta Sociolingüística. Se han actualizado las tablas que se publican en la web del EUSTAT.*

*6. Se ha actualizado la base de datos de las infraestructuras del euskera, la primera a mediados de año y la segunda a finales. Se han actualizado las tablas que se publican en la web del EUSTAT.*

*7. Se ha actualizado la estadística sobre la euskaldunización de adultos. La actualización se ha llevado a cabo en EAS, y además de los datos de la CAE, se han actualizado los de Navarra e Iparralde. Se han actualizado las tablas que se publican en la web del EUSTAT.*

*8. Se ha actualizado la estadística relativa al nivel de euskera de los y las empleados/as públicos/as. La actualización se ha llevado a cabo en EAS. Se han actualizado las tablas que se publican en la web del EUSTAT.*

***5. PROTEGER LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS***

*1. En el 2018 no se ha llevado a cabo ninguna actividad para ampliar el efecto social del servicio público para la protección de los derechos lingüísticos (ELEBIDE).*

*2. En el Plan General de Normalización Lingüística del Gobierno Vasco y en las directrices para la realización de planes de euskera en el resto del sector público se ha*

herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

*establecido como norma que en el apartado de lengua de servicio se implante un objetivo del 100% para garantizar el respeto de los derechos lingüísticos de la ciudadanía.*

3. ELEBIDEren eta Arartekoaren arteko elkarlana garatzen jarraitu dugu.

*3. Continúa la colaboración entre ELEBIDE y el Ararteko.*

**6. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA GIZARTE-BIZITZAN ETA EUSKARAREN GARAPEN SOZIALEAN DIHARDUTEN ERAGILEEN LANA BULTZATZEA**

***6. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LA SOCIEDAD E IMPULSAR LA LABOR DE LOS AGENTES QUE TRABAJAN EN EL DESARROLLO SOCIAL DEL EUSKERA.***

1. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko diru-laguntzen deialdia 2017-2018 epealdirako 2017an argitaratu eta ebatzi zen.

*1. La convocatoria de subvenciones para el desarrollo del Plan de Promoción del Euskera (ESEP) se convocó y resolvió en 2017 para el periodo 2017-2018.*

1.1. 167 eskatzaile aurkeztu ziren eta 163ri eman zaie diru-laguntza.

*1.1. Se presentaron 167 entidades y se concedió ayuda a 163.*

2. Udalerrietan ESEP diseinatu eta garapena bultzatzeko diru-laguntza izenduna eman zaio Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL).

*2. Para contribuir al desarrollo el Plan de Promoción del Euskera (ESEP) en los municipios, se ha dado una subvención nominativa a la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).*

3. Euskararen erabilera sustatzeko hainbat proiektu lagundu dira diruz, diru-laguntza izendunen bidez:

*3. Se ha concedido ayuda, subvención nominativa, a diversos proyectos destinados a promocionar el uso del euskera:*

Lehenengo hiru egitasmo garatzeko Soziolinguistikako Klusterrari eman zaio diru-laguntza:

*Para la realización de los tres primeros proyectos se le ha dado una subvención a Soziolinguistika Klusterra:*

• Aldahitzeko egitasmoan, Eusle metodologia, Ulerrizketa metodologia eta Uler-saioak metodologia hirukotea “sistema integral” modura garatu dira.

*• En el proyecto Aldahitz, se ha desarrollado un sistema integral con las metodologías Eusle, Ulerrizketa y Uler-saioak.*

• Jendaurrean Erabili ikerketa-egitasmoan, honako helburu zehatz hauek garatu dira: Praktika komunitateko kideen arteko harremanak estutzea. Elkar ezagutza areagotzea. Esperientzia trukea areagotzea. Erakundeen parte hartze aktiboagoa eragitea. Hartzaile bezainbeste emaile bihurtzen dituen dinamikak antolatzea. Erakunde parte hartzaileen praktiketan aldaketak eragitea; jendaurrean euskararen erabilera areagotzea modu eraginkor eta egokian.

*• En el proyecto Jendaurrean Erabili se ha desarrollado los siguientes objetivos: Estrechar la relación entre los miembros de comunidad práctica. Aumentar el conocimiento mutuo. Aumentar el intercambio de experiencias. Incrementar la participación activa de las instituciones. Organizar dinámicas para convertir en emisores a los receptores. Promover cambios en las prácticas de las instituciones participantes; incrementar el uso del euskera de cara al público de manera eficaz y adecuada.*

• “D ereduko kirola” ikerketa-proiektuan, honako lan hauek gauzatu dira: Guneetan martxan den esku-hartze esperimentala osatzea eta dokumentatzea. Ikerketa-txostenaren oinarri teknikotik abiatuta, prozesu bat gauzatzea, emaitzak sozializatzeko euskarriak eta moduak lantzeko. Aurrera begirako jarraipena definitu da, azken hiru urteetako ibilbidea oinarri hartuta.

*• En el proyecto “D ereduko kirola” se han desarrollado los siguientes objetivos: Implementar y documentar la intervención experimental en marcha en los diferentes centros. Partiendo de las bases técnicas propuestas en el informe, se ha llevado a cabo un proceso para elaborar los soportes y las posibilidades de socialización de los resultados. Se ha definido la continuidad del proyecto, en base al recorrido de los últimos tres años.*

• GALTZAGORRI ELKARTEAri diru-laguntza izenduna eman zaio, elkartearen euskarazko irakurketa programak aurrera ateratzeko. 2017an “Bularretik Mintzora” egitasmoa bukatutzat eman zen eta 2018an “Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko lantegiak” egitasmoa abian jarri da. Honen bidez, haur eta gazteen irakurtzeko ohitura sustatzeko irakasleentzako aholkularitza zerbitzua EAEko eskoletan eskaini da.

*• Se ha otorgado una subvención nominativa a la ASOCIACIÓN GALTZAGORRI para llevar a cabo la actividad “Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko lantegiak”, una vez dado por finalizado el proyecto en 2017 “Bularretik Mintzora”. Mediante el presente proyecto se presta asesoramiento al profesorado para promocionar el hábito de lectura de jóvenes y niños y niñas.*

• TXAKUR GORRIA KOLEKTIBOAri diru-laguntza zuzena eman zaio bertsolaritzaren bilakaera generoaren ikuspegitik jasotzen duen infografia garatzeko.

*• Se ha otorgado una subvención directa a TXAKUR GORRIA KOLEKTIBOA para el desarrollo de la infografía que describe el desarrollo del bersolarismo desde el punto de vista del género.*

4. Gizarte aktibazioa sustatzeko ekimena gauzatu da: EUSKARALDIA. Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatzea helburua izan duen ekimena, Euskal Herriko 400 udalerritan burutu da eta 225.000 pertsonek parte hartu dute, Ahobizi edo Belarriprest rola aukeratuta, beren egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten.

*4. Se ha desarrollado la iniciativa de activación social: EUSKARALDIA. El objetivo de la iniciativa ha sido cambiar las costumbres lingüísticas activando a las personas vasco parlantes; para que vayan dando pasos para vivir en euskera en su entorno cotidiano. Han participado 400 municipios y se han inscrito 225.000 personas con los roles de Ahobizi o Belarriprest.*

5. Topagunea Elkarteari diru-laguntza izenduna esleitu zaio (Euskara Elkarteen Federazioa), Auzoko egitasmoa ere egonkortu da aurten. Euskaratik urrun dauden pertsonak euskarara hurbiltzeko egitasmoa da Auzoko.

*5. Se ha concedido subvención nominativa a la Asociación Topagunea (Federación de Asociaciones del Euskera), al objeto de dar continuidad al programa Auzoko, cuyo objetivo es acercar al euskera a las personas lejanas a la lengua.*

6. Diru-laguntza izenduna esleitu zaio Topaguneari (Euskara Elkarteen Federazioa), Mintzalaguna egitasmoa (euskaraz hitz egiteko guneak) hedatzeko eta dauden “mintzalagunak” izeneko guneak sendotzeko eta jarraipena emateko.

*6. Se ha concedido subvención nominativa a Topagunea (Federación de Asociaciones del Euskera), al objeto de extender el programa Mintzalaguna (espacios para hablar en euskera) y realizar el seguimiento y afianzamiento de los espacios “mintzalagunak” en marcha.*

7. ONCE erakundeari diru-laguntza izenduna esleitu zaio.

*7. Se ha concedido una subvención nominativa a la ONCE.*

7.1. Itsuentzat 55 euskarazko literatura-lan Braillez eta Daisy formatuan jarri dira.

*7.1. Se han puesto en sistema Braille y Daisy 55 obras literarias en euskera.*

8. EUSKALGINTZA deialdia. Gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak: aisialdia, harreman sareak, erdal munduaren hurbilketa, euskararen ondarea, jardunaldiak, omenaldi esanguratsuak, familia bidezko transmisioa, irakurzaletasuna, etorkinak, kalitatezko ekarpenak, eta abar.

*8.- Convocatoria EUSKALGINTZA. Estas subvenciones están dirigidas a la promoción, difusión y/o normalización del euskera en los diferentes ámbitos de la vida social: ocio, acercamiento del mundo no vascohablante al euskera, patrimonio del euskera, jornadas, homenajes significativos, transmisión familiar, fomento de la lectura, inmigrantes, aportaciones de calidad, etc.*

8.1. 165 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 126 diruz lagundu dira.

*8.1. Se presentaron 165 proyectos, de los cuales se han subvencionado 126.*

9. “Mingaina Dantzan!” udalekuak antolatu dira. Horietan gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko estrategiak landu eta aztertu egin dira.

*9. Se han organizado los campamentos de verano “Mingaina Dantzan!”, por segunda vez, con el objeto de poner en marcha estrategias para el fomento del uso del euskera entre jóvenes.*

10. “Euskal Kirolari” egitasmoari jarraipena eman zaio.

*10. Se le ha dado continuidad al proyecto “Euskal Kirolari”.*

**7. HELDUEN IKASKUNTZA-EGITASMOA SENDOTZEA**

***7. FORTALECER EL PROYECTO DE APRENDIZAJE DEL EUSKERA DE PERSONAS ADULTAS***

1. Helduen euskalduntzearen araubide akademikoaren baitan, HEOCaren egitura eta deskribapena HABEren egitasmoen eta euskaltegien zereginen ardatz bilakatu da, betiere, helduen euskalduntzearen ikasprozesua sei mailatan egituratuz, eta ikaskuntzaren metodologia elkarreragin soziodiskurtsiboan ardaztuz, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarrituz, ekintza komunikatiboetan definituz eta metodologia bera euskararen ezaugarri eta ezagutzen duen egoera soziolinguistikora egokituz.

*1. Dentro de la normativa académica para la euskaldunización de personas adultas, implementar el HEOC en los programas de HABE y en las actuaciones didácticas de los euskaltegis, estructurando el proceso de aprendizaje de euskera a adultos en seis niveles, y adoptando una metodología de aprendizaje basada en el enfoque comunicativo de la lengua, centrada en la interacción sociodiscursiva, definida en actividades de lengua y adaptada a las características del euskera y a su situación sociolingüística.*

• Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) material curricularraz hornitu da, izaera desberdineko euskarriak sortuz (testu-ereduak, dokumentu osagarriak…) eta landuz.

*• Se ha implementado y desarrollado mediante la elaboración de material curricular (textos prototípicos, documentos complementarios…) el Currículo Básico para la Euskaldunización de Adultos (HEOC).*

• Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren inplementazio eta garapena elkarrekintzan bidera dadin, komunikabideak zabaldu zaizkie euskaltegiei eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei euren curriculum-proiektuak doitu eta egokitu ditzaten.

*• Se han abierto espacios de interacción y colaboración con los euskaltegis y centros de autoaprendizaje del euskera para el desarrollo e implementación del Currículo Básico para la Euskaldunización de Adultos, de manera que posibilitaren su ajuste y adecuación.*

1.1 Euskaltegietako Curriculum Proiektuak (ECP)

*1.1 Se han evaluado 99 proyectos curriculares en*

ebaluatu dira, 99 guztira, aldez aurretik euskaltegiei adierazitako eta eskainitako ebaluazio-irizpideen arabera.

• Euskaltegietako ordezkari edota klaustroekin batera 72 ebaluazio-bilera burutu dira, curriculum-proiektuen ebaluazioa eta horren araberako atzeraelikadura eskaintzea objektu izanik, betiere HEOCarekiko egokiera-maila azalduz eta balizko hobekuntza-eremuak proposatuz.

• Ebaluazioa burutzeko gidak eta erreminta-ereduak eskaini zaizkie euskaltegiei, kuantitatiboak zein kualitatiboak, helburu izanik euskaltegiaren curriculum proiektuaren "Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko sistema" atala hobetzea eta sendotzea.

• Euskaltegiaren Curriculum Proiektuaren "Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko-sistema" atalaren birformulazioa jaso duten 99 dokumentu ebaluatu dira, oinarri izanik ebaluazio-bileretan eskainitako atzeraelikadura.

• 99 euskaltegietako Curriculum Proiektuen "Ikasleak, irakasleak eta euskaltegia bera ebaluatzeko-sistema" atalari buruzko ebaluazio formatiboa bideratu da, alderdi ahulak eta sendotu beharrekoak azalduz, dokumentu programatiko horien bilakaeran kontuan hartzekoak.

• Euskaltegiei, beren Curriculum Proiektua eguneratzeko, aholkularitza-zerbitzu teknikoa eskaini zaie.

• Curriculumaren ildo nagusien inguruko ikastaroak antolatu dira, oinarrizkoak zein gaitasun-mailen araberakoak.

• HABEren zuzendari nagusiaren ebazpena, euskaltegiek eta autoikaskuntzarako centro homologatuek aurkeztutako curriculum proiektuak onartzen dituena.

• HPSren eskariz, "Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plangintzaldia, Hizkuntz Eskakizunak eta Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Curriculuma" dokumentua osatu da, non hizkuntza-eskakizunen ezarpena eta garapena helburu duten dekretuen oinarriak berregokitzea aztertzen den.

• HABEren eta KABIAren arteko elkarlanean, Gipuzkoako Aldundiaren organismo autonomo honen egiturapean diharduten langileen eginkizunen araberako hizkuntza-eskakizunak zehazteko eta egiaztatze-sistema baten azterketa burutzen dituzten funtzioen eta atazen arabera.

• Euskararen eremu administratibo guztietarako baliagarri izango den Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum partekatua ezartzeko bidea urratu da, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoa eta lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta, eta hauen arabera, gaitasun-mailak lortzeko behar diren eskola-orduak zehaztea eta adostea.

*función de los criterios de evaluación publicados y comunicados a los euskaltegis.*

*• Se han realizado 72 reuniones con responsables de los euskaltegis y/o claustros de profesores con el objeto de proporcionar feedback sobre la evaluación realizada a los proyectos curriculares, proporcionando ámbitos de mejora en función del grado de adecuación al marco curricular propuesto.*

